

## JABETZA ETA ERABILERA PUBLIKOKO LURZORUAK OSTALARITZARAKO NOLA ERABILI ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAKO ARAU HAUSTEEN GESTIOAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko urriaren 19an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Joan den legegintzaldian Terrazen Ordenantza onartu zuen Udalbatzak 2014ko martxoan. Aurreko legegintzaldi amaieran, gaur egun Gobernuan dagoen alderdi batek arau proposamena bideratu zuen aipatu ordenantza berriro aldarazteko.

Aldaketaren muina, informe teknikoen aurkakotasuna aintzat hartu gabe, bi esparrutan kokatzen zen, biak ala biak ordenantzaren aurkakoak izanik. Batetik, terraza jarri ezin izatea hainbat tabernek aipa terrazarekiko ikuspegi bisual osoa ez dutelako; eta bestea, ezin dituela ohiko terraza eta terraza itxi bat batera izan taberna batek.

Bi egoera hauek aldarazteko arau proposamenak ezin izan zuen legaltasunak markaturikoa irauli, baina bai aldaketa batzuk bideratu. Hala ere, gaur gaurkoz badira hainbat egoera oso zuzenak ez diruditenak, baina Udal Gobernu honen baimen edo onespena dutenak. Zalantzakorra da, aldiz, udal langileen, teknikoen onespena ba ote duten, hala nola ordenantzaren aplikazioa betetzen duten.

Honekin lotuta, Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzorua ostalaritzarako nola erabili arautzen duen ordenantzaren VII. Tituloan, hain zuzen ere, zigor erregimena azaltzen da eta arau-hausteak zerrendatzen dira, non hauen jarraipena U.O.K.U.ari dagozkion funtzioak diren. Ordenantzan argi jasotzen da zigor prozedura zein den kasu hauetarako eta hiritar baten salaketa egonez gero, 15 eguneko epean martxan jarri behar dela espediente. Zaratari dagokionez, ordenantzan ere aipatzen da “*Udalak eskatuko duela kutsadura akustikoaren arloko ingurumen babeserako xedapenak bete daitezen*” eta baldintza hau betetzen den edo ez aztertzeke jarraipena egingo duela.

Hala ere, hiritar asko dira arau-hausteak salatu eta oraindik erantzunaren zain daudenak. Donostiarrak sarritan somatzen dute egindako eskaera eta salaketak bideratzeko epeak luzatu egiten direla edota Udalean zerbait adierazten dutenean, hiritarrei ez zaiela erantzuten. Udan, salaketa eta kexa ugari egon dira, batez ere, gune saturatua den Alde Zaharreko bizilagunen aldetik, zaratak edota tabernetako lizentziak direla eta.

Urriaren 19ko batzordean Martin Ibabe zinegotzi ordezkariak emandako azalpenak argigarriak izan ez zirenez, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

1. Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari indarrean dagoen Terrazen Ordenantza bere horretan aplikatzea, bultzada politiko hutsa duten salbuespenezko baimenik eman gabe.
2. Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ordenantzen betearezpenerako zerbitzuak indartzea herritarren eskaerei erantzun eraginkorra eman diezaieten.

Donostian, 2015eko urriaren 23an

Olaia Duarte Lopez  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia